- 3 logelako 60 etxebizitza, 82 eta 89 m² arteko azalera erabilgarria dutenak.
- 2 logelako 14 etxebizitza, 69 m² inguruko azalera erabilgarria dutenak.
- 2 logelako 4 etxebizitza, mugikortasun urritu iraunkorreko pertsonentzat egokituak, 70 m² inguruko azalera erabilgarria dutenak.

Etxebizitza bakoitzak garaje-plaza bat eta trasteleku bat izango ditu eranskin bereizezin gisa, eta horien kokapena esleipen-kontratua sinatzen den unean zehaztuko da, egikaritze-proiektuari ikus-onetsia eman ondoren eta Udal Etxebizitza Tasatu gisa behin-behineko kalifikazioa lortu ondoren. Etxebizitza bakoitzari atxikitako eranskinak Eusko Jaurlaritzak eta

Erandioko Udalak adierazitako irizpideen arabera lotuko dira, eta kooperatibakideek ez dute garaje-partzela edo trastelekua aukeratzeko aukerarik izango.

Esleituko diren etxebizitzak eta horiei atxikitako eranskinen eta garajeen behin betiko neurriak Udal Etxebizitza Tasatu gisa behin-behineko kalifikazioa lortzen den unean zehaztuko dira, dagokion dokumentazio grafikoa barne, hori guztia, behar teknikoaren edo obra-beharren arabera balizko aldaketen kalterik gabe.

Oinarri hauei, **1-ERANSKIN** gisa, esleipenaren xede diren etxebizitzak xehatu dituen (etxebizitzak gela-kopurua, azalera eta prezioa adierazita) taula bat erantsi zaie.

2.- ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

2.1. Etxebizitzak eskuratzeko baldintza orokorrak

Prezio Tasatuko Udal Etxebizitzak (PTUE) eskuratu ahal izateko, interesdunak Vive Erandio sozietate kooperatiboko kide egin beharko dira, eta, horretarako, kooperatibakide-izaera erreserbatzeko eta kooperatibari atxikitzeko kontratuak sinatuko dituzte.

Jarraian adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetzak, kooperatibakide izateko eta ondoren oinarri hauen xede den etxebizitza tasatua esleitzeko eskatu ahal izango dute:

c) Adin nagusiko izatea

Eskatzaileek adin nagusiko edo adingabeko emantzipatu izan beharko dute izena ematean.

d) Erroldatuta egotea

Bizikidetzak osatzen duten geroko titularretako batek, gutxienez, Erandioko udalerrian erroldatuta egon beharko du gutxienez urtebete jarraian, oinarri hauek onartzen diren egunetik zenbatzen hasita.

Erroldari eta urtebeteko antzinatasunari buruzko betekizunak betetzen dituzten etxebizitza-sustapeneko parte-hartzaileen kopurua esleituko diren etxebizitza-kopurua baino txikiagoa bada, Erandion erroldatutako eskatzaileak kontuan hartuko dira erroldatze-antzinatasuna edozein dela ere. Hala ere, leku hutsak geratzen badira, EAEko edozein udalerritan erroldatuta dauden eskatzaileei esleitu ahal izango zaizkie.

Lehenago ezarritako irizpideen arabera sustapeneko etxebizitza guztiak beteko ez balira, sustatzaileak zuzenean esleitu ahal izango lituzke, bizilekuaren betekizuna kontuan hartu gabe, alegia.

c) Etxebizitzarik ez edukitzea

Bizikidetzak osatzen duten kide guztiek, oinarriak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita, gutxienez urtebete lehenago bete beharko dute etxebizitzarik ez edukitzeko baldintza, jabetzan –erabatekoa edo azalera-eskubidea– nahiz biziarteko gozamen-eskubide errealean, eta hori etxebizitza-premia zehaztu duen araudi autonomikoan ezarritako

baldintzetan eta salbuespenekin, salbu eta baduten etxebizitzak ez baditu indarreko araudian ezarritako gutxieneko bizigarritasun- edo irisgarritasun-baldintzak.

Bizikidetza-unitateari dagokionez, ez da halakotzat hartuko adiskidetasunagatik edo komenentziagatik sortu dena, bikote batek, esleipendun izanez gero, ezkontzeko edo izatezko Bikoteen Erregistroan erregistratzeko zinpeko adierazpena egiteko konpromisoa hartzen ez badu behintzat, betiere esleipen-kontratuaren eskritura publikoa egin aurreko epean. Etxebizitzaren titularkide izango dira bizikidetza-unitateko adin nagusiko kide guztiak, zuzeneko lerroko ondorengoak eta aurrekoak izan ezik.

Bi kideko edo gehiagoko bizikidetza-unitatea osatu dela egiaztatzeko, Erregistro Zibilaren ziurtagiria, Familia Liburuaren kopia edo izatezko bikotea dela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, gai horretan eskumena duen Udalak, Eusko Jaurlaritzak edo Herri Administrazioak egina.

Autonomia Erkidegoko araudian etxebizitza-premiari buruz ezarritako salbuespenez gain, jarraian adieraziko direnak joko dira etxebizitza-gabeziaren salbuespentzat:

- f) Bizikidetza-unitateko kideren batek beste etxebizitza baten jabe gisa parte hartzea, edozein titulu bidez eta ohiko bizileku izan gabe, baldin eta, udal-etxebizitza tasatua eskrituratu aurretik, partaidetza-kuota besterendu dela egiaztatzen badu.
- g) Etxebizitza baten jabetzan duen partaidetza % 50 baino txikiagoa bada, edo % 50ekoa edo hortik beherakoa bada, hura erabiltzea eragozten duen ebazpen judiziala badago.
- h) Bizileku edo errolatze baldintza betetzen duen bizikidetza-unitateko kideren bat edo guztiak udalerritik kanpoko etxebizitza baten titularra bada, udal-etxebizitza tasatuak eskuratu ahal izango ditu, eta, era berean, udal-etxebizitza tasatua eskrituratu aurretik etxebizitza besterendu dela egiaztatu beharko da.
- i) Bizikidetza-unitateko kideren batek minusbaliotasun-mailaren bat badu –dadministrazio eskudunak ziurtatua–, eta ohiko bizileku duen eraikinak irisgarritasunari eta jasogailuak izateari buruzko baldintzak betetzen ez baditu.
- j) Bizikidetza-unitateko kideren bat 70 urtetik gorakoa bada eta ohiko bizileku duen eraikinak irisgarritasunari eta jasogailuak izateari buruzko baldintzak betetzen ez baditu.

d) Diru-sarrerak:

1. 15.000 eurotik beherakoak ez diren eta 50.000 eurotik gorakoak ez diren urteko diru-sarrera haztatuak egiaztatu beharko dira 2020ko errenta-ekitaldiari dagokion zergaldian (2021ean aurkeztutako zerga-aitorpena). Mugikortasun urriko desgaitasuna duten edo desgaitasun psikikoa duten pertsonak nahikoa izango dute 3.000 eurotik beherako diru-sarrerak egiaztatzea. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei ez zaie eskatuko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

2. Diru-sarreraren jatorria

- b. Diru-sarreraren baldintza betetzat jotzeko, diru-sarreraren jatorria % 90 gutxienez lan-etekinak edota jarduera ekonomiko, profesional eta artistikoen etekinak edota beka izatea eskatuko da.

3. Diru-sarrera konputagarriak

- d. Euskal Autonomia Erkidegoan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonentzat eta, betebeharririk izan gabe, aitorpena egin dutenentzat, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenaren edo aitorpenen zerga-oinarri orokorrak eta aurrezki-oinarriak, lan-etekinei aplikatutako hobariak eta, hala badagokio, salbuetsitako errentak zenbatuko dira, hurrengo paragrafoan ezarritakoaren arabera.
 - e. Euskal Autonomia Erkidegoan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko betebeharra ez duten pertsonen kasuan, diru-sarrerara hauek zenbatuko dira:
 - i. Lan-etekinetan eta langabezia-prestazioetan, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako sarrera gordinen % 95.
 - ii. Pentsioetan eta langabezia-sorospenetan, baita kargaren salbuespen diren dietetan, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako sarrera gordinen % 100.
 - f. Bananduei, dibortziatuei eta alargunei eta izatezko bikoteko kideei dagozkien diru-sarrerak zehazteko, horietako bat hiltzen bada edo bikotea desagiten bada, egiaztatu beharreko diru-sarrerak ezkondata edo bikote-egoeran zegoen aldi bati badagokio, irizpide hauei jarraituko zaie:
 - i. Ezkontzaren araubide ekonomikoa ondasunen banantzekoa bada, eskatzailearen diru-sarrerak bakarrik zenbatuko dira.
 - ii. Gainerakoan, senar-emazteen edo izatezko bikotekidearen diru-sarreraren % 50 zenbatuko da.
 - g. Halaber, pentsio konpentsatzaileak kontuan hartuko dira horiek jasotzen dituen ezkontide ohiaren diru-sarrera gisa nahiz horiek ordaintzera behartuta dagoen ezkontide ohiaren diru-sarreraren gutxitze gisa, baldin eta pentsio konpentsatzailea ordaintzera behartuta dagoen ezkontide ohiak hori benetan ordaindu duela agiri bidez frogatzen badu.
 - e. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu behar ez duten pertsonen kasuan, lan-etekinetatik datozen diru-sarrerak egiaztatuzko, PFEZaren atxikipenen ziurtagiri ofizialak bakarrik hartuko dira kontuan.
4. Diru-sarreraren jasotzaileak eta denboraldi konputagarria.
- b. Diru-sarrera konputagarrien jasotzailetzat hartuko dira udal-etxebizitza tasatuaren titularkide izango diren bizikidetzaren unitateko pertsona guztiak.
 - b. Denboraldi konputagarria. 2020. urteari dagokion zergaldia.
5. Diru-sarreraren haztapena, autonomia-arautegi aplikagarrian –martxoren 4ko 39/2008 Dekretua– jasotako arau matematikoen arabera.

3. IZENA EMATEKO PROZEDURA

Oinarri hauen xede diren udal-etxebizitza tasatuak esleitzeko prozedura Erandioko Udaleko Alkatetzaren dekretu bidez hasiko da. Dekretu horren bidez, etxebizitzak onartu eta dagokion deialdia egingo da.

Oinarriak onartu ondoren, sozietate kooperatiboak izena emateko eta etxebizitzak esleitzeko prozedura kudeatuko du, publikotasun-printzipioa bermatuta, izapide hauen arabera:

- Sozietate kooperatibo sustatzaileak Bizkaiko Lurralde Historikoan zabalkunde handiena duen egunkarietako batean argitaratuko du iragarkia, gutxienez, eskabideak jaso eta formalizatzeko epearen irekieraren berri emateko. Epe hori ezin izango da hilabete baino laburragoa izan.
- Halaber, iragarkia Erandioko Udalaren web-orrian argitaratuko da, eta horrekin batera, onartutako oinarrien eduki osoa.
- Etxebizitzak esleitzeko prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak edo bizikidetzak unitateek, horretarako zehaztutako betekizunak betetzen dituztenek, ezarritako epean eman beharko dute izena, eta, horretarako, dagokion inprimakia edo eskabidea aurkeztu beharko dute, modu telematikoa, www.jaureguizar.com/promocion/vive-erandio estekan, edo zuzenean, sozietate kooperatiboaren bulegoetan:
 - Geltokia etorbidea 1 (Erandio)
 - Quintana kalea 6, etxabea (Bilbao)
- Prozeduran parte hartzea borondatezkoa izango da, eta interesdunek ez dute dirurik ordaindu beharko.
- Izena emateko prozedura hiru zerrendaren bidez gauzatuko da: bat, Erandioko udalerrian erroldatuta dauden eta gutxienez urtebeteko antzintasuna duten pertsonentzat, oinarri hauek onartzen diren egunetik zenbatzen hasita (1. zerrenda); bigarren zerrenda, Erandioko udalerrian erroldatuta badaude ere, lehen aipatutako antzintasun-baldintza betetzen ez dutenentzat (2. zerrenda); eta hirugarren zerrenda, Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrri batzuetan erroldatuta daudenentzat (3. zerrenda).
- Eskatzaile orori eskabidea formaliatu izana egiaztatzen duen agiria emango zaio.
- Izena emateko epea amaitu ondoren, sozietate kooperatiboak Erandioko Udalari onartutakoen behin-behineko zerrendak helaraziko dizkio eta, era berean, baztertutako eskabideen berri eta horien arrazoiak berri emango dio. Zerrendetan eskabide bakoitzaren zenbakia agertuko da, eta eskatzaileei zenbaki berbera jakinaraziko zaie.
- Onartuen eta baztertuen zerrendak Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira, baita udalaren web-orrian ere, BOST EGUNEKO epean Udalari berari erreklamazioak egin dakizkion.
- Epe hori igaro ondoren erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrendak behin betiko bilakatuko dira.

Bestela, Udalak ebatziko ditu, kooperatiba-sozietateari entzun ondoren, eta Alkatetzaren dekretu bidez onartuko dira behin betiko zerrendak, eta lehen aipatutako modu berean argitaratuko dira.

4. IZEN-EMATEAK

Eskatzaileek konpromiso hauek hartu beharko dituzte beren gain:

- Etxebizitza bizikidetzaren unitatearen ohiko bizileku iraunkorra izatea.
- Modu iraunkorrean udal-etxebizitza tasatuztat hartu izana onartzea.
- Kontratuan eta ondorengo salerosketa-eskritura publikoan jasotzea lehenago adierazitako konpromisoak eta baldintzak, Jabetza Erregistroan erregistra daitezten.

Horietako konpromisoren bat betetzen ez bada, eskabidea baztertu egingo da.

Izena emateko eskabidearekin batera, baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko dira. Baldintza horiek eskatzaileei eta bizikidetzaren unitateko kideei dagozkie.

Esleipen-kontratua eta eskritura publikoa eskabidean eskatzaile gisa agertzen diren pertsonen alde sinatuko dira, edo, hala badagokio, bizikidetzaren unitateko kideen alde. Pertsona bat baino gehiago agertzen diren eskabideetan, kooperatibakide izango den pertsona izendatu beharko da.

Ezin izango da eskabide bat baino gehiago aurkeztu pertsona edo bizikidetzaren unitate bakoitzeko. Eskabide bat baino gehiago aurkeztzen bada, lehenengoa joko da baliozkotzat, eskabide horietako bat banakakoa eta bestea baterakoa ez badira behintzat; horrelakoetan, eskabide bateratua joko da aurkeztuztat.

Etxebizitza-eskatzaileek, eskabidean jasotako datuetan aldaketarik badago, horren berri eman beharko diote kudeatzaileari, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean, aldaketa hori gertatzen denetik zenbatzen hasita. Aldaketa horien berri ematen ez bada, eskabidea atzera bota ahal izango da.

5.- AGIRIAK

Etxebizitzak esleitzeko prozeduran izena emateko eskabidearekin batera, jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek, lehenago adierazitako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko; halaber, agiri osagarriak ere aurkeztu ahal izango dira:

Eskatzaileak identifikatzeko:

- e) NANaren edo iraupen luzeko bizileku-txartelaren fotokopia, bizikidetzaren unitateko 14 urtetik gorako kide guztienak. Ez da pasaporterik edo aldi baterako bizileku-baimenik onartuko.
- f) Eskatzaileen, titularkideen eta bizikidetzaren unitateen kideen errolda-ziurtagiria.
- g) Eskatzaileen egoera zibilaren ziurtagiriak:
 - f. Ezkongabeak: bizi- eta egoera-agiria.
 - g. Ezkonduak eta alargunak: familia-liburuaren fotokopia.
 - h. Bananduak: banantze-epaia eta hitzarmen arauemailea.
 - i. Dibortziatuak: dibortzio-epaia eta hitzarmen arauemailea.
 - j. Izatezko bikoteak: Izatezko Bikoteen Erregistroan erregistratuta daudela egiaztatzen duen ebazpenaren fotokopia.

- h) Eskatzaileen idatzizko baimena, Udalak erakunde eskudunetatik beharrezko informazioa eskura dezan, etxebizitza babestu hori eskuratzeko baldintzak betetzen direla ikuskatzeko.

Etxebizitzarik ez dutela egiaztatzeko:

Bizikidetza-unitateko kideek, eskatzaileek edo titularkideek etxerik ez dutela agiri honen bidez egiaztatuko da:

- b) Ondasun higiezinaren ziurtagiria, Bizkaiko Foru Ogasunak egindakoa, eta bizikidetza-unitateko kideak errolatuta badaudela udalerriko Ogasuneko Ordezkaritzak, Bizkaikoa ez bada, deialdiaren aurreko urtean egindakoa.

Diru-sarrerak egiaztatzeko:

15.000 eurotik beherakoak ez diren eta 50.000 eurotik gorakoak ez diren urteko diru-sarrera haztatuak egiaztatu beharko dituzte eskatzaileek 2020ko errenta-ekitaldiari dagokion zergaldian (2021ean aurkeztutako zerga-aitorpena).

Mugikortasun urriko desgaitasuna edo desgaitasun psikikoa duten pertsonak nahikoa izango dute 3.000 eurotik beherako diru-sarrerak egiaztatzea. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei ez zaie eskatuko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

Hortaz, bizikidetza-unitateko kide guztiek beren diru-sarrera guztiak egiaztatu beharko dituzte, bai banakako eskatzaileek, bai bizikidetza-unitateek, honela:

3. Dagokion ekitaldian PFEZ aurkeztu beharrik ez badute, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Foru Ogasunaren edo, hala badagokio, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren ziurtagiria, PFEZren aitortzea aurkeztu beharrik ez dagoela egiaztatzen duena.
- Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindakoa.
- Besteren konturako langile izanez gero, enpresak edo enplegu-emaileak kontzeptu guztiengatik 2020ko ekitaldian irabazitako diru-sarrera gordinei buruz egindako ziurtagiria.
- Pentsiodunek edo beka-, prestazio- edo soroepen-jasotzaileek, gizarte-ongizateko laguntzen jasotzaileek ere, erakunde ordaintzaileak egindako ziurtagiria, ekitaldi horretakoa, aurkeztuko du; horretan, ordainsariaren iraupena adieraziko da.
- Eskatzaileak PFEZren aitortzea aurkeztu beharrik ez badu eta bestelako diru-sarrerarik badu, ekitaldi horretako diru-sarreraren ziurtagiriak aurkeztuko ditu.

4. PFEZren aitortzea aurkeztu behar badu edota aurkeztu badu, agiri hauek aurkeztuko ditu:

- 2020ko ekitaldiko PFEZren aitortzenen fotokopiak.
- Gainera, kotizazio gabeko prestazioak jasotzen badira, horien zenbatekoaren ziurtagiria.

Ohiz kanpoko egoerak egiaztatzeko:

Lehen adierazitako agiriak ez ezik, ohiz kanpoko egoerak egiaztatu ahal izateko, agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

Mugikortasun urriko pertsonak:

- c) Eskatzailearen etxebizitzan –hori balu– arkitektura-oztopoak daudela egiaztatzen duen arkitekto edo aparejadore baten txostena.
- d) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak egindako ziurtagiria, minusbaliotasun-maila zehaztu eta ziurtatzen duena.

70 urtetik gorakoek:

- d) Behin-behineko kalifikazioaren egunean 70 urtetik gorakoa den pertsonaren NANaren fotokopia.
- e) Eskatzailearen etxebizitzan –hori balu– arkitektura-oztopoak daudela egiaztatzen duen arkitekto edo aparejadore baten txostena.
- f) 70 urtetik gorako pertsona oinarri hauek onartzen diren egunetik gutxienez urtebete lehenago bizikidetzta-unitateko kide dela egiaztatzen duten agiriak, eskatzailea ez den beste pertsona bat bada.

6. KOOPERATIBAKIDE IZAERA ERRESERBATZEKO PROZEDURA ETA HAUTATZEKO HURRENKERA

6.1. Zozketa

Etxebizitza aukeratzeko eta kooperatibakide-izaera erreserbatzeko hurrenkera zehazteko, zozketa publikoa egingo da notario baten aurrean. Zozketa horren eguna eta tokia behar bezala iragarriko dira.

Zozketa horren emaitzak lehentasun-hurrenkera bat zehaztuko du, adieraziko diren baldintzetan, hau da, ez du esleipen zehatzik ekarriko.

Zozketa 1. zerrendako eskatzaileekin hasiko da (Erandioko udalean erroldatuta dauden eta gutxienez urtebeteko antzinatasuna duten pertsonak). Zozketa-ontzi batean sartuko dira eskatzaileen zenbakiak eta ausaz aterako dira eskuz. Agertzen diren hurrenkeraren arabera, eskabide bakoitzari segidako hurrenkera-zenbaki bat esleituko zaio; horrela, eskatzailearen identifikazio-zenbaki bakoitzak hautaketaren hurrenkera adierazten duen zenbaki bat izango du korrelatiboki.

Ondoren, zozketa-sistema bera erabiliko da 2. zerrendako eskatzaileekin, eta horiei esleituko zaien hurrenkera 1. zerrendako eskatzaileei jarritakoaren ondorengoa izango da, eta, azkenik, gauza bera egingo da 3. zerrendako eskatzaileekin.

Mugikortasun urritu iraunkorreko desgaituentzat egokitutako etxebizitzak aurrean adierazitako irizpide berberen arabera esleituko dira, eskabide-kopuruaren arabera eta beren zerrenden arabera.

Zozketa amaitzean, notariotzak emaitza ofizialdu ondoren, Udalaren web-orrian argitaratuko da.

6.2. Kooperatibakide izaera erreserbatzea

Emaizta argitaratu ondoren, sozietate kooperatiboak hura jakinaraziko die interesdunei zozketan izan duten hurrenkeraren arabera, sozietatearen bulegoetara bertara daitezen eta kooperatibakide izaera erreserbatu eta etxebizitza aukera ditzaten.

Interesdunek HOGEITA LAU ORDUKO epea izango dute –kooperatibak jakinarazpena egiten duenetik zenbatzen hasita– etxebizitzaren hauetaketa berresteko. Berretsi ostean, HOGEITA LAU ORDUKO beste epe bat izango dute 15.000 € ordaintzeko, kooperatibakide izaeraren erreserbaren truke. Edonola ere, kooperatibakide izaera erreserbatzeko kontratua BOST EGUNEKO epean sinatuko da, zenbateko hori ordaintzen denetik zenbatzen hasita.

Eskatzaileak eskainitako higiezinetan interesik ez badu edo erreserba-kontratua adierazitako epean izenpetzen ez badu, higiezin horiek berriro eskainiko dira, zozketaren hurrenkerari jarraituz, prozesuaren une horretako egoeraren arabera, eta horrela, hurrenez hurren. Interesdunek esleipen-prozeduran parte hartzeari uko egiten diotela ulertuko da orduan, eta izan dezaketen edozein eskubide galduko dute. Gauza bera gertatuko da sozietate kooperatiboaren bulegoetara arrazoi justifikaturik gabe bertaratzen ez badira horretarako deitzen zaienean.

Adierazitako prozesua sustapeneko etxebizitzak agortu arte egingo da.

Sozietate kooperatiboak eskatzaileei informazioa helarazteko deialdia egin zaien eguna eta ordua egiaztatu beharko ditu, eta, era berean, formalki justifikatu beharko du esleitutako hurrenkerara behar bezala bete dela.

Sozietate kooperatiboak Udalari prozesuaren azken emaitza jakinaraziko dio, esleipenak eta, gorabeherarik badago, aipatuta.

Zozketaren ondoriozko zerrenda amaitu ondoren, etxebizitza guztiak esleitu ez badira, sozietate kooperatiboak libreki merkaturatu ahal izango ditu gainerako etxebizitzak, bizileku-betekizunik gabe eta beste zozketa baten beharrik gabe, alegia.

Kooperatibakide izaera erreserbatzeko kontraturen bat suntsiarazten bada, edo esleipen-kontraturen bat suntsiarazten bada eta, ondorioz, kooperatibakide izateari utziz gero, eskuragarri geratzen diren etxebizitza eta eranskinak zerrendakoei eskainiko zaizkie, zerrendan duten hurrenkeraren arabera, eta prozesuak une horretan duen egoeraren arabera. Pertsona horiek 24 orduko epea izango dute etxebizitza horietan interesatuta daudela adierazteko, eta beste 24 orduko epea ere, kooperatibakide izaera erreserbatzeko kontratua sinatzeko eta dagokion zenbatekoa ordaintzeko. Kontratu horretan, esleipendun horrek gainerako esleipendunek egindako ordainketetan egunean jartzeko epea ezarriko da. Epe hori ezin izango da 15 egun baino laburragoa izan.

7.- KOOPERATIBARI ATXIKITZEA

Sozietate kooperatiboak eskatuko du interesdunek sozietate kooperatiboari atxikitzeko kontratuak sinatzeko, ekintza hauek egin ondoren:

- PR-1 lurzatian proiektatutako 150 etxebizitzaren % 90 gutxienez osatzen duten interesdunekin erreserba-kontratuak sinatu izana, hau da, esleipen-prozedura bereizituaren xede diren araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak kontabilizatuta.
- Sozietate kooperatiboak garatuko duen proiektuak Prezio Tasatuko Udal Etxebizitza (PTUE) behin-behineko kalifikazioa –Erandioko Udalak emana– eta sustapenaren 70 Babes Ofizialeko Etxebizitza (BOE) kalifikazioa lortu izana.
- Proiektua eraikitzeko obra-baimenak Erandioko Udalaren aldeko txostena lortu izana.

- Finantza-erakundeak sustapena garatzeko beharrezkoa den finantzaketa aurretik onartu izana.

Sozietate kooperatiboari atxikitzeko kontratua sinatzean, zenbateko hauek emango ditu kooperatibakideak:

- Alde batetik, 9.500 €, nahitaezko gutxieneko kapital gisa.
- Bestetik, 33.000 € (kopuru horri kooperatibakide izaera erreserbatzeko kontratua sinatu zenean emandako 15.000 €-ak kenduko zaizkio), kooperatiba finantzatzeko nahitaezko ekarpen gisa. Kopuru hori esleipen-kontratua sinatzean aplikatuko da, etxebizitzaren prezioaren konturako ordainketa gisa, eta, horretarako, dagozkien kontabilitate-mugimenduak egingo dira.

8.- ETXEBIZITZAK ESLEITZEA ETA ESLEIPENA FORMALIZATZEA

Etxebizitzak eta eranskinak kooperatibakideen eta, hala badagokio, bizikidetz-unitateen alde esleitzeko kontratuak hamabost eguneko epean egingo dira, sozietate kooperatiboak eskatzen dituenetik zenbatzen hasita, ekintza hauek egin ondoren:

- Sustapenaren BOE eta UET behin-behineko kalifikazioak eman izana.
- Udalak obra-baimena eman izana.
- Sustatzailearen mailegua formalizatu eta kooperatibak lurzorua erosi izana.

Esleipen-kontratua sinatzean, esleipendunak etxebizitzaren balioaren % 20 eta eranskinen balioaren % 40 ordaindu beharko ditu (BEZa barne). Zenbateko horri kooperatibari atxikitzeko kontratua sinatzean emandako 33.000 euroak kenduko zaizkio.

Esleipen-kontratuak Udal Administrazioak ikus-onetsiko ditu, eta ezin izango dira notario aurrean eskritura publiko bihurtu eta ezin izango dira Jabetza Erregistroan erregistratu ikus-onetsi hura gabe. Beren klausulek arautuko dituzte kontratuak, Oinarri hauetako xedapenetan, kooperatibaren estatutuetan, Kode Zibilean eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren kalterik gabe.

Erandioko Udalak behin betiko kalifikazioa eta lehen erabilerako lizentzia eman ondoren, esleipen-kontratua eskritura publikoan formalizatuko da eta etxebizitzak eta eranskinak emango dira. Esleipendunek ordaindu gabe duten zenbatekoa ordaindu beharko dute, hain zuzen, etxebizitzaren balioaren % 80 eta eranskinen balioaren % 60, gehi dagokion BEZa.

Sustapenaren etxebizitza-eskatzaile guztiek eta esleipendunek badakite eta borondatez eta berariaz onartzen dute lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko klausula bat dagoela Erandioko Udalaren alde, eta, subsidiarioki, Eusko Jaurlaritzaren alde. Klausula hori etengabe burutu ahal izango da etxebizitza horien baldintzak eta xedea betetzen ez badira, etxebizitza horien eskriturak egiten diren egunetik aurrera.

9.- ETXEBIZITZEN ETA ERANSKINEN PREZIOAK. GASTUAK.

Oinarri hauei, **1-ERANSKIN** gisa, esleipenaren xede diren elementuak (etxebizitzak, trastelekuak eta garajeak) xehatu dituen taula bat erantsi zaio. Taula horretan, etxebizitzetako gela-kopurua, azalera eta prezioa adierazi dira, kontuan hartuta garajearen eta trastelekuaren

prezioa lortzeko kalkulaturako azalera sustapeneko garaje eta trasteleku guztietatik lortutako batez bestekoa izan dela, eta behin betiko azalaretara egokitzearen ondorioz gerta daitezkeen aldaketan kalterik gabe.

Berariaz onartu da prezioen bereizketa, elementuen kokapenaren arabera, baldin eta justifikatzen bada sustapen osoan gehienezko mugak gainditzen ez direla.

Etxebizitza horien esleipenaren ondorio diren notariotzaren eta Jabetza Erregistroaren ordainsari eta gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira, baita hark sortzen dituen zergak ere, Hiri Lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga izan ezik.

Zozketaren notariotza-gastuak sozietate kooperatiboaren kontura izango dira, baita esleipen-prozedurarekin zerikusia duen beste edozein gastu ere.

Konturako entregak sozietate kooperatiboak bermatuko ditu, legeria aplikagarriaren arabera.

10.- DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoa betetze aldera, jakinarazten da eskatzaileek emango dituzten datuak eta baimen batekin biltzen direnak, Erandioko Udalaren titulartasuneko fitxategietan sartuko direla, horien tratamendurako, oinarri hauetan ezarritako helburuarekin.

Halaber, jakinarazten da Tartangako hirurogeita hemezortzi (78) UET esleitzeko prozeduran parte hartzeko eskabidea aurkeztuta, Erandioko Udalarai baimena ematen zaiola eskatzaileen identifikazioari buruzko datuak eta, hala badagokio, esleipendunak iragarki-taulan eta udalaren web-orrian argitaratzeko.

Esleipen-prozesuan zehar eskatzaileek emango dituzten datu pertsonalei Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa aplikatuko zaie, baita Datu Pertsonalen Tratamenduari dagokionez Pertsona Fisikoen babesari eta datu horien zirkulazioari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (DBEO) xedatutakoa ere –horren bidez, 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, eta hura garatzeko araudia indargabetu dira.

Bildutako datuak datu pertsonalen fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Fitxategi horren helburua da eskatzaileek emandako eta oinarri hauetan eskatutako datu pertsonalak tratatzea.

Esleipen-prozesuan emandako datuak tratatzean, ezarritako segurtasun-mailarekin bat datozen segurtasun-neurriak beteko dira.

Datuen arduraduna

Erakunde hau izango da datuen arduraduna: Vive Erandio, S. Coop, helbidea Bilboko Quintana kalea 1 duena eta F75217240 IFK duena (aurrerantzean, "Arduraduna").

Datuen xedea

Interesdunak arduradunari helarazten dizkion galderei erantzutea; interesdunak mahaigaineratutako auzia konpondu arte tratatuko dira datuak. Horren ondoren, bost (5) urtez gordeko dira, erreklamazioak egin, egikaritu edo defendatu behar balira. Hautaketa-prozedura kudeatzea, baita etxebizitza tasatua eta horren eranskinak esleitzea, eta sustatzailearen mailegua eskatuko den finantza-erakundeari helaraztea ere.

Legitimazioa

Interesdunaren adostasuna.

Jasotzaileak

Datu pertsonalak Erandioko Udalari laga ahal izango zaizkio bere eskumenak gauza ditzan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.7 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Datuen tratamenduaz arduratzen diren hirugarrenak kontratatzen ditu Arduradunak bere zerbitzuak eman ahal izateko. Tratamenduaren arduradun horiei izan ezik, datuak ez zaizkie beste hirugarren batzuei jakinaraziko. Arrazoren batengatik hirugarrenei datu horiek jakinarazi behar bazaizkie, aldez aurretik jakinaraziko zaizu, eta, hala badagokio, baimena eskatuko zaizu, eta jakinarazpen horren helburuak eta datuak jakinaraziko zaizkion hirugarrenaren identitatea zehaztuko zaizkizu. Hori guztia, legezko errekerimendu batek datu horiek hirugarren bati jakinaraztera behartzen dituen kasuak izan ezik.

Eskubideak

Datuak ematen dituztenek aldi oro eskubide hauek erabili ahal izango dituzte:

- Datuetan sartzeko eskubidea.
- Datuak zuzentzeko eta kentzeko eskubidea.
- Datuak ezerezteko eskubidea.
- Datuen tratamendua mugatzeko eskubidea.
- Datuen eramangarritasunaren gaineko eskubidea.
- Datuen tratamenduari aurka egiteko eskubidea.
- Adostasuna errebokatze eskubidea.

Zure eskubideei buruz gehiago jakin nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Datuen Babeserako Espainiako Agentziarekin, web-orrialdearen bitartez nahiz 901100 099 eta 912 663 517 telefonoen bitartez. Egoitzara bertara joan zaitezke ere: Jorge Juan, 6. 28001 - Madril.

11.- ESLEIPENA BALIOGABETZEKO ARRAZOIAK

Arrazoiak:

Esleipena baliogabeko da hauek gertatzen badira:

6. Oinarrietan adierazitako baldintza edo betekizunen bat betetzen ez bada.
7. Esleitutako etxebizitzaren prezio zehatza onartzen ez bada.
8. Esleipendunari eskabidean adierazitako helbidean edo, erroldatu ondoren helbide berrian, egindako jakinarazpenei ezarritako epean erantzuten ez bada.

9. Esleipen-kontratua eta eskritura publikoa sinatzeko egindako errekerimenduei jaramonik egiten ez bazaie.
10. Oinarri hauetan betetzeko eskatutako datuak egiaztatzeke lanei oztupoak jartzen bazaizkie.

12.- KONTRATUAK: KONTRATUA SINATZEA, ESKRITURAK EGILESTEA, IKUS-ONESTEA

Etxebizitzak esleitzeko kontratuak esleipendunek eta sozietate kooperatiboak sinatuko dituzte, eta haiek beren klausuletan xedatutakoaren arabera arautuko dira, betiere oinarri hauetako xedapenetan, Kode Zibilean eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren kalterik gabe.

UETen jabetza osoko esleipen-kontratu guztiak udal-administrazioak ikus-onetsi beharko ditu, eta ikus-onetsirik gabe ezin izango da Jabetza Erregistroan sartu.

Nolanahi ere, etxebizitzak esleitzeko behin betiko kontratua eskritura publikoan formalizatuko da, Erandioko Udalak lehen erabilerako lizentzia eta behin betiko kalifikazioa eman ondoren.

Eskritura publikoa egilestean, esleipendunak ordaindu gabe dituen zenbatekoak ordainduko ditu.

Kooperatibakideen kontura izango dira legez dagozkien gastu eta zerga guztiak, eta berariaz adierazi beharko da oinarri hauetan jasotako prezioei esleipendunak ordaindu beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren dagokion ehunekoa, gaur egun, ehuneko hamarra (% 10), gehituko zaiela.

13.- JABETZA ERREGISTROAN ERREGISTRATZEA

Udalak dagokion Jabetza Erregistroari jakinaraziko dio etxebizitzak Udala Etxebizitza Tasatu gisa behin betiko kalifikatu direla. Kalifikazio horretan, etxebizitzak eta horiei atxikitako garaje eta trastelekuen araubidea eta gehieneko prezioa adieraziko dira, ukitutako ondasunetan jasota gera daitezkeen eta, horrekin batera, bidezko den moduan argitara eman daitezkeen, bai lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea, lehenik eta behin, Udalaren alde, eta subsidiarioki, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren alde. Halaber, gainerako Udala Etxebizitza Tasatuak arautzen dituen ordenantzan ezarritako gainerako mugak adieraziko dira.

14.- OINARRIEN INTERPRETAZIOA

Oinarri hauek Erandioko Udalak interpretatuko ditu. Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian, gaiari buruzko udal-ordenantza aplikatuko da, eta, halakorik ezean, Babes Publikoko Etxebizitzaren arloan indarrean dagoen autonomia-araudia.

ANEXO 1 - ERANSKIN

Nº	Portal	Piso	Puerta	VIVIENDAS		GARAJES		TRASTEROS		VI + GA + TR
				VIVIENDA Sup. útil	Precio (iva no incl.)	GARAJE Superficie media útil	Precio (iva no incl.)	TRASTERO Superficie media util	Precio (iva no incl.)	IMPORTE TOTAL (Sin IVA)
01	4	1º	A	83,99	207.703,08	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	227.933,00
02	4	1º	B	84,18	208.074,57	0,00	16.282,92	6,46	3.947,00	228.304,49
03	5	1º	A (MINUS)	70,45	179.006,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	199.235,97
04	5	1º	B	88,56	216.638,22	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	236.868,14
05	5	1º	C	82,50	204.790,88	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	225.020,80
06	5	1º	D	89,88	219.220,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	239.449,97
07	5	1º	E (MINUS)	70,49	179.104,80	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	199.334,72
08	6	1º	A	83,83	207.391,26	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	227.621,18
09	6	1º	B	84,08	207.880,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	228.109,97
10	4	2º	A	83,99	221.037,08	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.267,00
11	4	2º	B	84,18	221.408,57	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.638,49
12	5	2º	A (MINUS)	70,45	192.340,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	212.569,97
13	5	2º	B	88,56	229.972,22	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	250.202,14
14	5	2º	C	82,50	218.123,88	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	238.353,80
15	5	2º	D	89,88	232.553,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	252.782,97
16	5	2º	E (MINUS)	70,49	192.437,80	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	212.667,72
17	6	2º	A	83,83	220.724,26	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	240.954,18
18	6	2º	B	84,08	221.213,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.442,97
19	4	3º	A	83,99	221.037,08	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.267,00
20	4	3º	B	84,18	221.408,57	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.638,49
21	5	3º	A	69,72	190.555,95	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	210.785,87
22	5	3º	B	88,56	229.972,22	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	250.202,14
23	5	3º	C	82,50	218.123,88	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	238.353,80
24	5	3º	D	89,88	232.553,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	252.782,97
25	5	3º	E	69,86	190.898,11	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	211.128,03
26	6	3º	A	83,83	220.724,26	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	240.954,18
27	6	3º	B	84,08	221.213,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.442,97
28	4	4º	A	83,99	221.037,08	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.267,00
29	4	4º	B	84,18	221.408,57	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.638,49
30	5	4º	A	69,72	190.555,95	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	210.785,87
31	5	4º	B	88,56	229.972,22	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	250.202,14
32	5	4º	C	82,50	218.123,88	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	238.353,80
33	5	4º	D	89,88	232.553,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	252.782,97
34	5	4º	E	69,86	190.898,11	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	211.128,03
35	6	4º	A	83,83	220.724,26	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	240.954,18
36	6	4º	B	84,08	221.213,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.442,97
37	4	5º	A	83,99	221.037,08	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.267,00
38	4	5º	B	84,18	221.408,57	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.638,49
39	5	5º	A	69,72	190.555,95	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	210.785,87
40	5	5º	B	88,56	229.972,22	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	250.202,14
41	5	5º	C	82,50	218.123,88	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	238.353,80
42	5	5º	D	89,88	232.553,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	252.782,97
43	5	5º	E	69,86	190.898,11	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	211.128,03
44	6	5º	A	83,83	220.724,26	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	240.954,18

45	6	5°	B	84,08	221.213,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.442,97
46	4	6°	A	83,99	221.037,08	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.267,00
47	4	6°	B	84,18	221.408,57	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.638,49
48	5	6°	A	69,72	190.555,95	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	210.785,87
49	5	6°	B	88,56	229.972,22	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	250.202,14
50	5	6°	C	82,50	218.123,88	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	238.353,80
51	5	6°	D	89,88	232.553,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	252.782,97
52	5	6°	E	69,86	190.898,11	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	211.128,03
53	6	6°	A	83,83	220.724,26	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	240.954,18
54	6	6°	B	84,08	221.213,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.442,97
55	4	7°	A	83,99	221.037,08	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.267,00
56	4	7°	B	84,18	221.408,57	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.638,49
57	5	7°	A	69,72	190.555,95	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	210.785,87
58	5	7°	B	88,56	229.972,22	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	250.202,14
59	5	7°	C	82,50	218.123,88	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	238.353,80
60	5	7°	D	89,88	232.553,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	252.782,97
61	5	7°	E	69,86	190.898,11	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	211.128,03
62	6	7°	A	83,83	220.724,26	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	240.954,18
63	6	7°	B	84,08	221.213,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.442,97
64	4	8°	A	83,99	221.037,08	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.267,00
65	4	8°	B	84,18	221.408,57	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.638,49
66	5	8°	A	69,72	190.555,95	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	210.785,87
67	5	8°	B	88,56	229.972,22	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	250.202,14
68	5	8°	C	82,50	218.123,88	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	238.353,80
69	5	8°	D	89,88	232.553,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	252.782,97
70	5	8°	E	69,86	190.898,11	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	211.128,03
71	6	8°	A	83,83	220.724,26	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	240.954,18
72	6	8°	B	84,08	221.213,05	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	241.442,97
73	4	9°	A	69,47	209.944,96	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	230.174,88
74	5	9°	A	83,73	240.528,74	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	260.758,66
75	5	9°	B	82,03	237.204,95	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	257.434,87
76	5	9°	D	83,06	239.218,77	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	259.448,69
77	6	9°	A	69,24	209.382,85	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	229.612,77
78	6	9°	B	82,48	238.084,77	26,65	16.282,92	6,46	3.947,00	258.314,69
				16.832.900,81	1.270.067,51	307.866,27	18.410.834,59			